




# AGENDA



## Maddi Etxeberria Otaegiren "Zein usain dute oroitzapenek" liburuaren aurkezpena

XEHETASUNAK

**NOIZ:** ekainak 11, 11:00etan

**NON:** Donostia, Udal Liburutegiko Sotoa

## Errezitaldia

### Xerezaderen Artxiboa Literatur Podkastaren Jaia

Bilbo, 19:30etan, Osteguna, 2018-06-21

## Irakurle taldeak eta klubak

### Eider Rodriguezekin "Bihotz handiegia" mintzagai

Tolosa, 19:00etan, Asteazkena, 2018-06-20

### Virginia Woolfen "Gela bat norberarena" mintzagai

Leioa, 19:30etan, Asteazkena, 2018-06-20

### Uxue Alberdiren "Jenisjoplin" mintzagai

Iruñea, 20:00etan, Ostirala, 2018-06-22

### Maixa Zugastiren "Ahotsak eta itzalak" mintzagai

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf




Maddi Etxeberria Otaegik *Zein usain dute oroitzapenek* liburua aurkeztuko du Erein argitaletxearen eskutik.

**Sinopsia:**

Bizitzak hala nahi izan duelako joan da Gaia —hogeita bost urteko neska gaztea— Colchester hirira, lanera. Euskal Herriaren eta Erresuma Batuaren artean kokatzen da istorioa, eta Gaiak Heleni bidalitako eskutitzek gauzatzen dute kontakizuna, distantzia hori laburtuz. Lagun zaharrak, lagun berriak, amodio zaharrak, amodio berriak... Bizitza berri bati ekin nahi dio Gaiak, baina ez du atzean utzi duen altxorra ahaztu nahi.

Astean bat, bi, hiru... eskutitzen bidez kontatzen dio lagunari bere bizitza berria; lagun berriak, Euskal Herriarekin gordetzen duen harremana, Anderrekin duen harremana... Urte betean zehar idatzitako eskutitz hauek Gaiaren bizitza kontatzen dute sinpleki; harremanetan oinarritutako bizitza, sentipenak, bizipenak...

Gazteei eskainitako liburu bat da; eskutitzen bidez idatzita egonik, irakurterraza eta oso dinamikoa egiten da. Amaiera arte ez da trama guztia argitzen, eta eserialdi bakar batean irakurri nahiko ditu irakurleak eleberriko eskutitzak.

Maitasunak eta heriotzak zeharkatutako liburua da esku artean duzuna, irakurle.





Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

hitzenuberan@idazleak.eus

LEGE OHARRA

HITZEN UBERAN • EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

HARREMANETARAKO • UBERAN APP

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf